



HACIA UNA CULTURA
INCLUSIVA
Museos para todas y todos

**KULTURA
INKLUSIBOAREN BIDEAN**
Guztientzako museoak

EDIZIOA. **EDICIÓN:**

K6 Gestión Cultural S.L - Elkartu (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea. **Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa**)

DISEINUA ETA KOORDINAZIOA. **DISEÑO Y COORDINACIÓN:**

K6 Gestión Cultural S.L

EGILEAK. **AUTORAS:**

Marta Font (K6 Gestión Cultural S.L), Norma Andrade (Elkartu).

DISEINU GRAFIKOA, MAKETAZIOA ETA MARRAZKIAK:

DISEÑO GRÁFICO, MAQUETACIÓN E ILUSTRACIONES:

Raquel Sánchez Gascón

ESKERRAK. **AGRADECIMIENTOS:**

Igartubeiti Baserri Museoa, Zumalakarregi Museoa, San Telmo Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa, TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa, Begiris, Atzegi.

BABESA. **PATROCINIO:**

Kutxa Fundazioa

INPRIMAKETA. **IMPRESIÓN:**

Gráficas Lorea

ISBNpapel: 978-84-09-18856-7

ISBNebook: 978-84-09-19211-3

LG D 00168-2020



AURKIBIDEA. ÍNDICE

1. GIDALIBURU HONI BURUZ ACERCA DE ESTA GUÍA	7
2. KONTUAN HARTU AL NAUZU? ¿ME HAS TENIDO EN CUENTA?	12
3. ZERTAZ HITZ EGITEN ARI GARA? ¿DE QUÉ ESTAMOS HABLANDO?	17
4. NONDIK HASI EDO NOLA JARRAITU POR DÓNDE EMPEZAR O CÓMO SEGUIR	46
5. IRISGARRITASUN NEURRIEI BURUZKO GOMENDIOAK RECOMENDACIONES SOBRE MEDIDAS DE ACCESIBILIDAD.....	54
6. LANERAKO FITXAK FICHAS DE TRABAJO	74
-Erakusketa irisgarria. Diseinu grafikoaren arloko irizpideak. Exposición accesible. Criterios de diseño gráfico.	
-Ezagutu zure erabiltzailea. Conoce a tu usuario/a.	
7. ERANSKINA. ANEXO	
-Lege-esparrua Marco legal	83

GIDALIBURU HONI BURUZ
ACERCA DE ESTA GUÍA



Bizitza kulturalera sarbidea izatea eta bertan parte hartzea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948)* eta Nazio Batuen Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubidei buruzko Nazioarteko Konbentzioan (2006) adierazitako eskubidea da.

Halaber, konpromiso, errespetu eta empatia kontua da pentsatzea pertsona orok eskubidea duela bere inguruko adierazpen, jarduera, zerbitzu eta espazio kulturalen baldintza berdinetan gozatzeko.

Ilde horretan, **museoa**, kultur ekosistema-
ren eragile gisa, pertsona guztien parte hartzera irekitako espazioa bezala kokatzen da, haien gaitasunak edozein direla ere, gizarte-aniztasun izugarri baten interesei erantzuten dien eta horiekin elkarrekintzan ari den espazioa baita.

Gida hau, **K6 Kultur Gestioa** enpresak eta **Elkartuk** (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) elkarrekin egindako lanaren emaitza da. Gidak, ikuspegi hau sendotzen du eta kultur eragileei zuzendutako hausnarke-
ta eta akzio tresna gisa sortzen da, kultur jarduera irisgarriagoak eta inklusiboagoak sortzen lagunduz.

Bat egiten duten bi begirada bateratzen ditu. Urteak dira, kultur arlotik, **K6 Kultur**

El **acceso y la participación en la vida cultural** es un derecho expresado en la Declaración Universal de los Derechos Humanos (1948)* y en la Convención Internacional de Naciones Unidas sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad (2006).

También es una cuestión de compromiso, respeto y empatía el pensar que toda persona tiene derecho a disfrutar en igualdad de condiciones de las diferentes manifestaciones, actividades, servicios y espacios culturales de su entorno.

En este marco, **el museo** como agente del ecosistema cultural se sitúa como un espacio abierto a la participación de todas las personas, independientemente de sus capacidades, que interactúa y da respuesta a los intereses de una enorme diversidad social.

Fruto del trabajo conjunto entre **K6 Gestión Cultural** y **Elkartu** (Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa), esta guía refuerza esta visión y nace como herramienta de reflexión y acción destinada a las y los agentes culturales para contribuir a la generación de prácticas culturales más accesibles e inclusivas.

Aúna dos miradas que suman. Desde el

Gestioa-k, gizarte guztiarekin museoa eta kultur ondarea lotzen dituzten jarduera eta egitasmoak sustatzen dituela. Giza arlotik, **Elkartuk**, bere ibilbide luzean zehar, inklusio osoaren eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen giza parte hartzearen alde lan egiten du.


Borondatezko elkarlan honetatik, proiektu hau epe luzerako **prozesu irekitzat** hartu behar da, eta eragile kultural eta sozialak elkarlan egonkor, lasai eta eraginkor bat hastera bultzatzen ditu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gidaliburu hau gauzatzeko ekarpenak egin dituzten sektore sozialeko elkarteei eta Euskadiko museoei, gai honetan erakutsitako interesetatik eta Kutxa Fundazioari emandako laguntzagatik.

sector cultural, **K6 Gestión Cultural** impulsa desde hace años prácticas y proyectos que conectan el museo y el patrimonio cultural con toda la sociedad. Desde el sector social, **Elkartu**, en su larga trayectoria trabaja por la plena inclusión y participación social de las personas con discapacidad física.

Desde esta voluntad colaborativa, este proyecto se plantea como un **proceso abierto**, a largo plazo, e invita a las y los agentes culturales y sociales a abrir una colaboración estable, tranquila y efectiva.

Agradecemos la colaboración de las asociaciones del sector social que han participado con aportaciones a esta guía, a los museos de Euskadi por el interés mostrado en esta materia y a Kutxa Fundazioa por su apoyo.



* Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala Nazio Batuen Batzar Nagusia. 217 A (III) Erabakia, 1948ko abenduaren 10ekoa. Paris.

* Declaración Universal de los Derechos Humanos Asamblea General de las Naciones Unidas. Resolución 217 A (III) del 10 de diciembre de 1948. París.

Nazio Batuen Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubidei buruzko nazioarteko Konbentzioa, 2006.

30. Artikulua. Bizitza kulturala, dibertimenduzko jarduerak, aisialdian eta kirolean parte hartzea.

Estatu Parte-hartzaileek desgaitasunen bat duten pertsonak, gainontzekoen baldintza berdinetan, bizitza kulturean parte hartzeko duten eskubidea berretsi dute, eta neurri egoki guztiak hartuko dituzte desgaitasunen bat duten pertsonak:

- (a) Kultura material irisgarria izateko aukera izan dezaten;
- (b) Telebista programak, filmeak, antzerki eta beste jarduera kulturalak formatu irisgarrian izan ditzaten;
- (c) Zerbitzu edo emankizun kulturalak eskaintzen diren tokietara iristeko modua izan dezaten, antzerki, museo, zinema, liburutegi eta turismo zerbitzuetara eta, ahal den neurrian, garrantzi kultural nazionaleko monumentu eta tokietara iristeko.

Convención Internacional de Naciones Unidas sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad, 2006.

Artículo 30. Participación en la vida cultural, las actividades recreativas, el esparcimiento y el deporte.

Los Estados Partes reconocen el derecho de las personas con discapacidad a participar, en igualdad de condiciones con las demás, en la vida cultural y adoptarán todas las medidas pertinentes para asegurar que las personas con discapacidad:

- (a) Tengan acceso a material cultural en formatos accesibles;
- (b) Tengan acceso a programas de televisión, películas, teatro y otras actividades culturales en formatos accesibles;
- (c) Tengan acceso a lugares en donde se ofrezcan representaciones o servicios culturales tales como teatros, museos, cines, bibliotecas y servicios turísticos y, en la medida de lo posible, tengan acceso a monumentos y lugares de importancia cultural nacional.

2

KONTUAN HARTU AL NAUZU?
¿ME HAS TENIDO EN CUENTA?

Emakumezkoa, gizonezkoa (0-5 urte, 6-10 urte, 11-14 urte, 15-18 urte, 19-29 urte, 30-39 urte, 40-49 urte, 50-65 urte, 66-75 urte, 76-80 urte, 81 urte baino gehiago), **eskuintia**, ezkertia, **altuera handia**, altuera txikia. **Ikusmen ona**, ikusmen murriztua, **pertsona itsua**, entzumen ona, **audifonoa darama**, entzumen murriztua, **eskuineko eskua bakarrik erabiltzen du**, ezin du eskurik erabili, **ibiltzeko zailtasunak ditu**, makila erabiltzen du, **erraz nekatzen da**, muletak erabiltzen ditu. **Artritis erreumatoidea duen pertsona**. Zeliakoa, **tentsio baxua du**, adinekoa, **guraso bakarreko familia**, familia ugaria. **Gurpil-aulkia erabiltzen du, eskuzkoa edo elektrikoa**. Ez du hizkuntza ulertzen. **Testu luzeak uler ditzake**, ulermen-arazoak ditu, **daltonikoa da**. Haurdun dagoen pertsona, **aita edo ama haur-kotxearekin**. Alzheimerra duen pertsona eta laguntzailea, **nahasmendu bipolarra duten pertsonen taldea**. Beharizan bereziak dituen ikaslea (autismoa, garuneko paralisia, Down-en sindromea). **Tentsio baxua du, desgaitasun organikoa (bihotzekoa, gibealekoa, birikietakoa etab)**. Era askotako alergia. **Depresioa** eskizofrenia eta **nahasmendu bi-**

BENETAN KONTURATZEN AL GARA GURE INGURUKO ANIZTASUN SOZIALAZ? NOLA ERANTZUTEN DIOGU?

Irisgarritasuna museoan neurriak ezartzea baino gehiago da. Gaur egun, terminoak **esanahi zabalagoa du**, eta horrek zerikusia du museoaren pertsona guztien eskura jartzeko behararekin.

Kontua da, museoaren beraren funtzioa, diskurtsoak eta horiek transmititzeko moduak birpentsatzeko aukera emango duen bideari ekitea. **Aniztasun sozial** izugarriaren aurrean, museoaren askotarara bizi ahal izateko aukerak eskaintzea da erronka.

Ikuspegi horrek aukera ematen dio museoari **ikuspegi sortzaileagoak eta malguagoak** eskatzen dituzten proposamen berriak sortzeko. Aldi berean, museotik kanpoko programak nabarmen aberastu ditzaket hainbat diziplinatarako beste profesional batzuekin elkarlanean aritzea ekar dezake.

¿REALMENTE SOMOS CONSCIENTES DE LA DIVERSIDAD SOCIAL DE NUESTRO ENTORNO? ¿CÓMO LE DAMOS RESPUESTA?

La **accesibilidad** va más allá de la implementación de medidas en el museo. El propio término hoy día abarca un **significado más amplio** que tiene que ver en abrir el museo a todas las personas.

Se trata de emprender un camino que posibilite incluso repensar la propia función del museo, sus relatos y formas de transmitirlos. Ante la enorme **diversidad social**, el reto es abrir un camino de posibilidades para que el museo pueda vivirse de múltiples maneras.

Esta visión plantea al museo la oportunidad de generar nuevas propuestas que requieran **enfoques más creativos y flexibles**. A su vez, puede implicar la apertura de colaboraciones con otras y otros profesionales externos procedentes de diferentes disciplinas que pueden enriquecer considerablemente los programas.

ZERTAZ HITZ EGITEN ARI GARA? OINARRIZKO KONTZEPTUAK ¿DE QUÉ ESTAMOS HABLANDO? CONCEPTOS BÁSICOS


3

KULTURA INKLUSIBOA

3.1 CULTURA INCLUSIVA

Kulturaren izaera inklusiboak bermatzen du pertsona guztiak behar dituzten aukerak eta baliabideak izatea kulturaren arloko adierazpen eta jardueretan parte hartze-ko, eta **giza aniztasuna** onartzea dakar.

El carácter inclusivo de la cultura asegura que todas las personas tengan las oportunidades y recursos necesarios para participar en las manifestaciones y actividades que de ésta deriven e implica la asunción de la **diversidad humana**.





Irisgarritasuna barne hartzen du erabateko **partaidetzaren** aurretiko baldintza gisa. Hau da, espazio bat eta haren zerbitzuak ez badira guztientzat irisgarriak, desgaitasunen bat duten erabiltzaileek ezin izango dute inolako jarduerarik normaltasunez egin.

Horregatik, museoaren irisgarritasuna aztertzerakoan, gomendagarria da itxuraz errazenetik hasia, hau da, museoaren ingururako eta espaziorako sarbideak, barne-zirkulazioa eta oinarriko zerbitzuetarako sarbidea eta horien erabilera berrikustea, komunikazioari eta edukiei lotutako oztopoak pixkanaka kentzeko.

Abarca la **accesibilidad** como condición previa a la **participación** plena. Es decir, si un espacio y sus servicios no son accesibles para todos y todas, las personas usuarias con algún tipo de discapacidad no podrán llevar a cabo ninguna actividad con normalidad.

Es por ello que al plantear la accesibilidad del museo es recomendable comenzar con lo aparentemente más sencillo, que sería revisar los accesos al entorno y espacio museístico, su circulación interna y el acceso y uso de los servicios básicos, para progresivamente abordar la eliminación de barreras vinculadas a la comunicación y a los contenidos.



Testuinguru horretan, gure lurraldeko kultura-sektorearen barruan, eta, bereziki, museoen eremuan, gero eta kontzientzia-zio handiagoa dago irisgarritasun unibertsalaren inguruan, eta asko dira ekimenak bultzatzen ari diren kultura-guneak, pertsona guztiek beren kultura-eskaintzaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Hala eta guztiz ere, oraindik badira kultura inklusiboaren ikuspegitik zerbitzuak eta programak modu egonkorrean txertatzeko gainditu behar diren erronkak.

En este contexto, dentro del sector cultural de nuestro territorio y particularmente en el ámbito de los museos, existe cada vez más concienciación en torno a la accesibilidad universal y son muchos los espacios culturales que están impulsando iniciativas para que todas las personas tengan la oportunidad de disfrutar de su oferta cultural.

A pesar de ello, aún hay retos pendientes para que de forma estable se incorporen servicios y programas desde la visión de la cultura inclusiva.



● Igartubeiti Baserri Museoaren zentzumenezko ibilbidearen elementuak. Ezkio. (Irudia: Miryam Galilea)
Elementos del recorrido sensorial por el Caserío Museo Igartubeiti. Ezkio. (Imagen: Miryam Galilea)

Museoan aniztasuna normalizatzeko bidean aurrera egiteko, interesgarria da denontzako diseinua kontuan hartuta programak sortzea, ahal den neurrian. Pertsona guztientzat pentsatutako zentzumen-esperientzia bat sortzea izan liteke adibide bat.

Museoan egin den edo egingo den ibilbidea edozein izanda ere, hasieratik honako hau egitea gomendatzen da ondorengo kanal ezberdin hauen bitartez:

-Web-orria: «Irisgarritasun» atal espezifiko modu ikusgarri, erraz eta intuitiboan.

-Sare sozialak, posta elektronikoz mezuak bidaltzea.

-Museoko liburuxka orokorrak.

-Jarduerak jakinarazteko euskarriak: kartelak, diptikoak, flyerrak...

-Erabiltzaileentzako arreta: telefonoz edo bitarteko digitalez, oinarritzkoa da museo langileek modu eraginkorrean jakinaraztea neurriak eta programak.

-Museoko panelak eta seinaleak: museo espazioan bertan. Pertsona guztiek ondo ikusteko lekuan, harrera-lekuan, sarreran.

Para avanzar hacia la normalización de la diversidad en el museo, es interesante generar programas desde el *diseño para todos* en la medida que sea posible. Un ejemplo podría ser la creación de una experiencia sensorial pensada para todas las personas.

Sea cual sea el camino recorrido o a recorrer del museo, se recomienda desde el principio informar sobre las condiciones de accesibilidad a través de diferentes canales:

-Página web: Apartado específico de «Accesibilidad» de un modo visible, fácil e intuitivo.

-Redes sociales, emailings.

-Folletos generales del museo.

-Soportes de difusión de actividades: Carteles, dipticos, flyers...

-Atención a las personas usuarias: Ya sea por teléfono o medios digitales, es básico que el personal del museo comunique de forma efectiva las diferentes medidas y programas.

-Paneles, señalética in situ: En el propio espacio del museo. En un sitio visible para todas las personas, en recepción, en la entrada.

Garrantzitsua da informazio hori erraz topatzea eta zentruaren web-orri bertatik ikusteko moduan egotea.

Es importante que esta información sea fácil de encontrar y esté visible desde la propia página web del centro.



● Web-orria. Igartubeiti Baserri Museoa. *Página web Caserío Museo Igartubeiti:* (<https://www.igartubeitibaserria.eus/eu/irisgarritasuna> - <http://www.igartubeitibaserria.eus/es/accesibilidad>)

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA:

3.2

ACCESIBILIDAD UNIVERSAL:

Kulturarako sarbideaz hitz egitean, Irisgarritasun Unibertsalerantz aurrera egiteko beharrea jartzen dugu arreta, honela ulertuta:

Al hablar de acceso a la cultura, nos centramos en plantear la necesidad de avanzar hacia la Accesibilidad Universal, entendida como:

Inguru, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek, bai eta objektuek, bitartekoek, tresnek eta gailuek ere, baldintza hau bete behar dute pertsona guztiek ulertu, erabili eta praktika ahal ditzaten, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta era autonomo eta naturalenean.

La condición que deben cumplir los entornos, procesos, bienes, productos y servicios, así como los objetos, instrumentos, herramientas y dispositivos, para ser comprensibles, utilizables y practicables por todas las personas en condiciones de seguridad y comodidad y de la forma más autónoma y natural posible.

Ikuspegi horrek «diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren» estrategiak behar ditu gauzatu ahal izateko.

Esta visión presupone la estrategia del «diseño universal o diseño para todas las personas» para poder materializarse.

(Iturria: 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena).

(Fuente: Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social).

PERTSONA GUZTIENTZAKO DISEINUA:

Pertsona guztientzako diseinua edo *Disseinu Unibertsala* delakoak, bestelako ezaugarri fisiko, sentzorial, kognitibo, dimentsional, kulturalak dituzten pertsonentzako giza aniztasunaren neurrira diseinatzea proposatzen du.

Ikuspegi horren abiapuntua da, ingurua dela desgaitasuna eragiten duena, eta beraz ingurua dela pertsoneri egokitu behar zaiena, eta ez alderantziz.

DISEÑO PARA TODAS LAS PERSONAS:

El Diseño para todas las personas o Diseño Universal plantea ante personas con características físicas, sensoriales, cognitivas, dimensionales, culturales diferentes, diseñar a medida de la diversidad humana.

Esta visión parte de que es el entorno el que discapacita y es el que debe adaptarse a las personas y no al revés.

Pertsona guztientzako diseinua **funtsezkoa** da biztanleriaren % 10arentzako / **Beharrezkoa** biztanleriaren % 40arentzako / **Erosoa** biztanleriaren % 100arentzako.

El Diseño para todas las personas es **fundamental** para el 10% de la población / **Necesario** para el 40 % de la población / **Confortable** para el 100 % de la población.



(Iturria. Fuente: Design for All Foundation)

«"Diseinu unibertsala" edo "pertsona guztientzako Diseinuak"» inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, bitartekoak, tresnak, programak eta gailuak pertsona guztiek erabili ahal izateko ahalik eta hedaturik handiengan hasiera-hasieratik eta posible den guztietan sortzen eta proiektatzen den jardura da, egokitzapenik eta diseinu espezializaturik behar ez duena.


«Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinuak» ez ditu pertsona-talde jakinentzako laguntza-produktuak baztertuko, horiek beharra dutenean.

«"Diseño universal" o "Diseño para todas las personas"» es la actividad por la que se conciben o proyectan desde el origen, y siempre que ello sea posible, entornos, procesos, bienes, productos, servicios, objetos, instrumentos, programas, dispositivos o herramientas, de tal forma que puedan ser utilizados por todas las personas, en la mayor extensión posible, sin necesidad de adaptación ni diseño especializado.

El «diseño universal o diseño para todas las personas» no excluirá los productos de apoyo para grupos particulares de personas con discapacidad, cuando lo necesiten.

(Iturria: 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena).

(Fuente: Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social).



● Iturria. *Fuente:* De Francesco Gasparetti from Senigallia, Italy - Tempio di Hatshepsut: scalinata, CC BY 2.0

Museoaren espazioan *pertsona guztientzako diseinuaren printzipio orokorrak** zeharka aplika daitezke, bai espazioetan, bai edukietan; adibidez, erakusketa batean.

Ikus ditzagun printzipioak adibide zehatzekin:

1/ Erabilera-berdintasuna: Pertsona guztiek erabiltzeko baliabideak, espazioak diseinatzea, ahalik eta independentzia-mailarik handienarekin. (Dena den, batzuetan laguntza tekniko osagarri espezifikoak erabili beharko dira).

En el espacio del museo se pueden aplicar los **principios generales*** del *diseño para todas las personas* de forma transversal, tanto en espacios, como en contenidos, por ejemplo en una exposición.

Veamos los principios con ejemplos concretos:

1/ Igualdad de uso: Diseño de espacios, recursos para ser utilizados por todas las personas, con el mayor grado de independencia posible (aunque a veces será necesario usar ayudas técnicas complementarias específicas).

* Erreferentziak. *Referencias:* <http://designforall.org/>, ICUB I IMPD, Ajuntament de Barcelona (ed.). *Exposicions accessibles.*



● Garaiera desberdinetako elementuak. TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa. (Iturria: egilea)
Elementos a diferentes alturas. TOPIC. Centro Internacional del Títere de Tolosa. (Fuente propia)



Hainbat tamainako eserlekuak. TOPIC zentroko auditoriuma. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa. (Iturria: egilea)
Asientos de diferente tamaño. Auditorio del TOPIC. Centro Internacional del Títere de Tolosa. (Fuente propia)




- Sarrera nagusia dagoen kokapen-planoa (tinta, erliebea eta braille-sistema erabili dira). Plano de situación (integrado con tinta, relieve y braille) situado en la entrada principal. Museu de Cultures del Món. Barcelona. (Iturria: egilea) (Fuente propia)

2/ Malgua: Diseinua erabilera-moduetara egokitzen da. Adibidez, eskuin eskuarekin eta ezkerrekin erabili ahal izatea, hautatzeko aukerak eskaintzea.

- Soinu-modulua. Kokapen eta altuera egokiak. Zumalakarregi Museoa. Ormaiztegi. (Iturria: egilea)
- Módulo sonoro. Colocación y altura adecuadas. Museo Zumalakarregi. Ormaiztegi. (Fuente propia)

2/ Flexible: El diseño se adapta a diferentes formas de uso. Por ejemplo, que pueda usarse con la mano derecha y la izquierda, que ofrezca posibilidades de selección.



3/ Simplea eta intuitiboa: Ulertzeko erraza, erabiltzailearen esperientzia, ezagutzak edo kontzentrazio-maila edozein dela ere.

3/ Simple e intuitivo: Fácil de entender, sencillo, independientemente de la experiencia, conocimientos o grado de concentración de la persona usuaria.

● *San Telmo Museoa. Donostia / San Sebastián.*



Ikono arruntak erabiltzea lekuak eta zerbitzuak identifikatzeko. Orientazioa hobetzen du. (Iturria: egilea)

Uso de iconos comunes para identificar espacios y recorridos. Mejora la orientación. (Fuente propia)



Museu de la Vida Rural. Espluga de Francolí

4/ Hauteman daitekeen informazioa: Erabiltzaileak erraz erabili ahal izateko informazioa jaso behar du, ingurumen-baldintzak edo zentzumen-gaitasunak edozein direla ere.

4/ Información perceptible: La persona usuaria debe recibir la información para su uso de manera fácil, independientemente de las condiciones ambientales o las capacidades sensoriales.



● *Ukimenezko modulua. Módulo táctil. Cristóbal Balenciaga Museoa. Getaria. (Iturria: egilea)*
(Fuente propia)



5/ Akatsekin tolerantia: Ondorio kaltegarriak edo nahi ez direnak eragin ditzaketen ustekabeko ekintzak edo ekintza desgokiak murriztu behar ditu diseinuak.


5/ Tolerante a errores: El diseño debe minimizar las acciones accidentales o fortuitas que puedan tener consecuencias fatales o no deseadas.



● Oztopoa gainditzen duen arrapala. Igartubeiti Baserri Museoa. Ezkio. (Irudia: Miryam Galilea)
Rampa que salva obstáculo. Caserío Museo Igartubeiti. Ezkio. (Imagen: Miryam Galilea)

6/ Ahalegin fisiko txikia eskatzen duena: Diseinua ahalik eta ahalegin txikienarekin erabili behar da. Eraginkortasunez, erostasunez.

6/ Que requiera poco esfuerzo físico: El diseño debe usarse con el mínimo de esfuerzo posible. De manera eficiente, cómoda.



● Testuaren tamaina eta kontraste egokiak. Zumalakarregi Museoa. Ormaiztegi. (Iturria: egilea)
Tamaño y contraste del texto adecuados. Museo Zumalakarregi. Ormaiztegi. (Fuente propia)

7/ Hurbiltzeko eta erabiltzeko espazio eta dimentsio egokiak: Erabiltzailearen adina, tamaina, kokapena edo mugikortasuna edozein dela ere, sarbide, irismen, manipulazio eta erabilerarako neurri eta espazio egokiak dituen.



- Zirkulazioa errazten duten gune eta pasagune zabalak. *Espacios y pasos amplios que facilitan la circulación.* Cristóbal Balenciaga Museoa. Getaria. (Iturria: egilea) (Fuente propia)

7/ Espacio y dimensiones adecuadas para la aproximación y uso: Que proporcione medidas y espacios apropiados para el acceso, alcance, manipulación, uso, independientemente de la edad, tamaño, posición o movilidad de la persona usuaria.



- Zirkulazioa errazten duten gune eta pasagune zabalak. *Espacios y pasos amplios que facilitan la circulación.* San Telmo Museoa. Donostia / San Sebastián. (Iturria: egilea) (Fuente propia)



- Sarrera. Denda. Hainbat altuerako apalak objektuekin, guztiok eskura izateko moduan. TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa. (Iturria: egilea)
- Entrada. Tienda. Baldas con objetos a diferentes alturas, adecuado para todas y todos. TOPIC. Centro Internacional del Títere de Tolosa. (Fuente propia)

- Eserlekuen mailegua. *Préstamo de asientos.* San Telmo Museoa. Donostia / San Sebastián. (Iturria: egilea) (Fuente propia)

MUSEOAREN IRISGARRITASUN KATEA:

3.4

CADENA DE ACCESIBILIDAD DEL MUSEO:

Museoan irisgarritasun plan integral bat gauzatu nahi dugunean, irisgarritasun-katea hartu behar dugu kontuan.


Irisgarritasun-kateaz hitz egitean, museo-ara egiten den bisitan parte hartzen duten prozesu eta elementuez (guztiak) hitz egiten ari gara; horiek erabakigarriak izan daitezke bisita gogobetegarria izan dadin. Honako alderdi hauek hartzen ditu barnean: museora joateko beharrezkoa den aldeaz aurreko informazioa, bertako langileen tratua edo komun publikoen egoerarekin zerikusia duten alderdiak. Hau da, eraikinean hainbat neurri irisgarri ezartzea baino zerbait gehiago da.

Horregatik, museoko langile guztiek gai honi buruzko **prestakuntza** jasotzea gomendatzen da, oinarritzkoa baita, pertsona guztiek ikuspegi inklusiboa beren funtzioen barruan txertatzea, beren arloa edo erantzukizuna edozein dela ere.

Cuando nos planteamos llevar a cabo un plan de accesibilidad integral en el museo debemos tener en cuenta la cadena de accesibilidad.

Al hablar de **cadena de accesibilidad** nos referimos al conjunto de procesos y elementos (todos) que intervienen en la visita al museo, y que pueden llegar a ser decisivos para que ésta sea satisfactoria. Comprenden desde aquellos aspectos vinculados a la información previa necesaria para acudir al museo, al trato hacia las personas con discapacidad o al estado de los aseos públicos. Es decir, va más allá de la implementación de una serie de medidas accesibles en el edificio.

Es por ello que se recomienda como algo básico la **formación** de todo el personal del museo en esta materia, para que todas las personas integren la visión inclusiva dentro de sus propias funciones, sea cual sea su área o su responsabilidad.



Barne hartzen ditu:

1/ Sarrera: Aldez aurreko informazioa. Garraio irisgarria.

2/ Ingurua: Hirigintza (hirigintza-oztoporik aurkitu gabe heldu ahal izatea).

3/ Eraikina: Arkitektura. (arrapalak, eskailerak, ateak, erakusmahaiak...).

4/ Instalazioak: Zerbitzuak (komunak, atsedenguneak, kafetegia, denda...).

5/ Jendearentzako arreta: Prestakuntza. Desgaitasuna duten pertsonak tratatzeko modua.

6/ Seinaleak: Informazioa. Diseinua.

7/ Edukiak: Gidoiak, testuak eta hauek aurkezteko moduak. Edukietara sartzeko aukera eskuragarriak.

8/ Baliabideak: Neurri irisgarriak. Desgaitasunagatiko neurri irisgarriak, gailu irisgarriak.

9/ Hezkuntza-eskaintza eta Jarduerak: Didaktika eta programazioa.

10/ Hedapena: Komunikazioa. Euskarriak.

Comprende:

1/ Acceso: Información previa. Transporte accesible.

2/ Entorno: Urbanismo (poder llegar sin encontrar barreras urbanísticas).

3/ Edificio: Arquitectura (rampas, escaleras, puertas, mostradores...).

4/ Instalaciones: Servicios (aseos, áreas de descanso, cafetería, tienda...).

5/ Atención al Público: Formación. Trato a personas con discapacidad.

6/ Señalética: Información. Diseño.

7/ Contenidos: Guiones, textos y formas de presentarlos. Opciones accesibles de acceso a los contenidos.

8/ Recursos: Museografía. Medidas accesibles por discapacidad, dispositivos accesibles.

9/ Oferta educativa y Actividades: Didáctica y programación.

10/ Difusión: Comunicación. Soportes.

NORENTZAKO DIRA IRISGARRITASUN NEURRIAK?

3.5

¿A QUIÉN DIRIGIMOS LAS MEDIDAS DE ACCESIBILIDAD?

Epe luzeko bide honetan ibilbide luze zein laburra egin arren, ziurtasuna izan dezakegu irisgarritasunak hobetu egingo duela pertsona guztiek museoan duten esperientziaren kalitatea, eta, zehazkiago, desgaitasunen bat duten pertsonen esperientzia.

Horretarako, oso gomendagarria da museoan bisita-erreserbak egiten dituzten taldeen ezaugarriak eta beharrak behar besteko aurrerapenez ezagutzea, haien harrera eta esperientzia ahalik eta ondoen prestatzeko.

Erreserbaren oharrak hartzerakoan garrantzitsua da ondorengoak kontuan izatea: ea gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten pertsonak dauden eta zenbat diren, ea erraz nekatzen diren, ulermen mailak, besteak beste.

Jarraian, desgaitasun desberdinei lotutako sinboloak aurkezten dira.

Aipatzekoa da, halaber, pertsona berarengan desgaitasun mota bat baino gehiago eragiten dituzten desgaitasun anitzak edo lotutako desgaitasunak daudela.

Estemos donde estemos en este camino a largo plazo, podemos tener la seguridad que la accesibilidad mejorará la calidad de la experiencia en el museo de todas las personas, y de forma más específica de las personas con alguna discapacidad.

Para ello es muy recomendable conocer con suficiente antelación las características y necesidades de los grupos que realizan reservas de visita en el museo, de cara a preparar de la mejor manera posible su acogida y experiencia.

Es importante en el momento de apuntar la reserva tener en cuenta cuestiones como: si hay personas usuarias de sillas de ruedas y cuántas, si se cansan con facilidad, niveles de comprensión, entre otras.

A continuación se presentan los símbolos asociados a las diferentes discapacidades.

También cabe mencionar que existen las discapacidades asociadas o pluridiscapacidades, que implican en una misma persona más de un tipo de discapacidad.



**1/
DESGAITASUN FISIKOA.
DISCAPACIDAD FÍSICA:**

1.1/ Mugikortasuna:

- Protesia.
- Gurpil-aulkia erabiltzen duten erabiltzaileak.
- Anputazio edo murrizketa txikia.
- Altuera txikiko pertsonak / Altuera handiko pertsonak.
- Aldi baterako desgaitasuna duten pertsonak Makuluak, adibidez.

1.2/ Trebetasuna:

- Goialdeko gorputz-adarrak.

1.1/ Movilidad

- Prótesis.
- Usuarios/as con sillas de ruedas.
- Pequeña amputación o reducción.
- Personas de baja talla / Personas de mucha estatura.
- Personas con una discapacidad temporal. Muletas por ejemplo.

1.2/ Destreza:

- Miembros superiores.



**2/
IKUSMEN DESGAITASUNA.
DISCAPACIDAD VISUAL:**

2.1/ Ikuspen zentrala, ikuspen periferikoa, ikuspen lausoa. Honako pertsona hauek barne hartzen ditu:

-Sortzetiko edo jaiotzatiko itsutasuna:

«Legezko itsuak» izenekoak, B1 siglen bidez ere ezagunak. Gehienez % 10eko ikusmen-zolitasuna edo ikuseremua dute.

-Hartutako itsutasuna. Haurtzaroan edo helduaroan zehar. Horiek ere B1 dira.

-Ikusmen murriztua. B2 siglak dituzte. Ikusmen-hondarra % 10 eta % 50 bitartekoa.

-Ikusmen-hondarra % 50 baino handiagoa B3 siglak dituzte. Betaurrekoak eta laguntza optikoak erabiltzen dituzten pertsonak.

-Adineko pertsonak, oro har: Adinak eragindakoak B3 izaten dira, onenean ere.

2.1/ Visión central, visión periférica, visión borrosa. Incluye personas con:

-Ceguera congénita o de nacimiento:

Denominados “ciegos legales”, también conocidos con las siglas B1. Tienen hasta un máximo del 10% de agudeza visual o campo visual.

-Ceguera adquirida. Durante la infancia o edad adulta. También son B1.

-Baja visión. Conocidos con las siglas B2. Resto visual superior al 10% pero inferior al 50%.

-Resto visual superior al 50%: Conocidos con las siglas B3. Personas usuarias de gafas y ayudas ópticas.

-Gente mayor en general: Suelen ser por cuestión de edad B3, en el mejor de los casos.



3/ ENTZUMEN DESGAITASUNA. DISCAPACIDAD AUDITIVA:

3.1/ Ezpainak irakurtzea, zeinu-mintzaira, gor-itsutasuna duten pertsonak. Honako pertsona hauek barne hartzen ditu:

Gorreria sakona (90dB baino entzumen-galera handiagoa), larria (71dB baino entzumen-galera handiagoa baina 90dB baino txikiagoa), ertaina (41 eta 70dB artean), arina (20 eta 40dB artean) eta adineko jendea oro har, adinagatik gorreria mailaren bat dutenak.

3.1/ Lectura labial, lenguaje de signos, personas con sordoceguera. Incluye personas con:

Sordera profunda (pérdida auditiva superior a los 90dB), severa (pérdida auditiva superior a 71dB pero inferior a 90dB), mediana (entre 41 y 70dB), leve (entre 20 y 40dB) y gente mayor en general, que por edad presentan algún grado de sordera.



4/ DESGAITASUN KOGNITIBOA, PSIKIKOA, ADIMEN DESGAI- TASUNA ETA NAHASMENDU MENTALA. DISCAPACIDAD COGNITIVA, PSÍQUICA, INTELECTUAL, Y TRASTORNO MENTAL:

4.1/ Graduak:

- Pertzepzioa / Arreta.
- Oroimena / Pentsamendua.

Honako pertsona hauek barne hartzen ditu:

- Ikaskuntzaren nahasmenduak:** autismoa, dislexia...
- Nahasmendu mentalak:** depresioa, larritasuna. Horrek ez du esan nahi adimen-gaitasun gutxiago dutenik.
- Gaixotasun neurologikoak edo nahasmendu genetikoak:** alzheimerra, Down-en sindromea, etab.
- Portaeraren nahasmenduak:** arreta-urritasuna, hiperaktibitatea ,etab.

4.1/ Diferentes grados:

- Percepción / Atención.
- Memoria / Pensamiento.

Incluye personas con:

- Transtornos de aprendizaje:** autismo, dislexia...
- Transtornos mentales:** depresión, agustias. No implica que tengan menos capacidad intelectual.
- Enfermedades neurológicas o trastornos genéticos:** Alzheimer, síndrome de Down, etc.
- Transtornos del comportamiento:** déficit de atención, hiperactividad etc.






5/ DESGAITASUN ORGANIKOA DISCAPACIDAD ORGÁNICA

Barne-organoekin edo prozesu fisiologikoekin erlazionatu ohi diren gorputz-sistema batzuen funtzionaltasun-galerak eragindakoa.

Honako hauek barne hartzen ditu: Giltzurrunetako gaixotasunak, gibealekoak, kardiopatiak. Hemofilia, lupusa, zefaleak, migrainak, parkinsona, loaren nahasmenduak, fibromialgia, besteak beste.

Producida por la pérdida de funcionalidad de algunos sistemas corporales, que suelen relacionarse con los órganos internos o procesos fisiológicos.

Incluye:
Enfermedades renales, hepáticas, cardiopatías. Hemofilia, lupus, cefaleas, migrañas, párkinson, trastornos del sueño, fibromialgia, entre otras.

	Letra handiagoa edo laguntza optikoak dituzten elementuak. Elementos con letra ampliada o ayudas ópticas.
	Audio bidezko deskribapena. Hay audiodescripción.
	Braille sistemako elementuak. Hay elementos en Braille.
	Begizta magnetikoa. Hay bucle magnético.

	Zeinu-mintzaira. Lengua de signos.
	Azpitituluak. Subtitulación.
	Ukimen bidezko elementuak. Hay elementos táctiles.
	Laguntza-txakurrak sar daitezke. Los perros de asistencia son bienvenidos.
	Irakurketa Erraza. Lectura Fácil.

4

NONDIK HASI EDO NOLA JARRAITU POR DÓNDE EMPEZAR O CÓMO SEGUIR

Berria dena, irisgarri egin.

Museoa ez bada irisgarri sortu, egin hobekuntza-plana.

Neurri irisgarriak badaude... Bere horretan utzi.

● **Lo nuevo, hazlo accesible.**

▮ **Si el museo no ha nacido accesible, realiza un plan de mejoras.**

▮ **Si existen medidas accesibles... Manténlas.**



Gure museo-errealitatetik abiatzen bagara, ikusiko dugu irisgarritasunaren arloko egoerak desberdinak direla. Antzinate-sunagatik, espazio asko dira kultura inklusiboaren ikuspegitik sortu ez direnak, eta gerora, batez ere **irisgarritasun fisikoan** oinarritutako hobekuntzak burutu dituzte. Beste ekipamendu batzuk beranduago jaio dira, eta oztopo arkitektonikorik gabeko espazioak dira, **baina irisgarritasun desberdinetan aurrera egin ahala, batzuen eta besteen erronkak antzekoak dira.**

Museoan desgaitasunen bat duten pertsonen parte-hartzeari dagokionez, gero eta kultur programa gehiago daude guztientzako diseinua oinarritzat hartuta sortuak edo kolektibo horri berariaz bideratuak; dena den, oraindik ere, sarritan, programa horiek noizbehinka bakarrik eskaintzen dira.

Si partimos de nuestra realidad museística, veremos que las situaciones en materia de accesibilidad son dispares. Son muchos los espacios que por antigüedad no han sido creados desde la visión de la cultura inclusiva y han adoptado posteriormente mejoras centradas sobre todo en la **accesibilidad física**. Otros equipamientos han nacido en fechas más tardías y son espacios sin barreras arquitectónicas, **aunque a medida que avanzamos en las diferentes accesibilidades los retos de unos y otros son parecidos.**

En cuanto a la participación en el museo de personas con discapacidad, cada vez existen más programas culturales creados desde el diseño para todos o destinados específicamente a este colectivo, aunque todavía en muchos casos se trata de programas que se ofertan de forma puntual.

Ikuspegi inklusibo baten presentzia modu egonkorrean ziurtatzeko, “produktu” berri baten sorreratik irisgarritasunaren arduradun bat txertatzea gomendatzen da. Honela, edukietan eta hauek agertzeko moduan eragiten da, baita museografian eta hurbilketa desberdinak eskaintzeko aukeretan ere.

Para asegurar la presencia de un enfoque inclusivo de forma estable se recomienda incorporar una persona responsable de accesibilidad desde la fase de concepción de un “producto” nuevo. De esta manera, se puede incidir en los contenidos y la forma de plasmarlos, en la museografía y en las posibilidades de ofrecer diferentes acercamientos.



● *Diziplina anitzeko taldea erakusketa sortzeko lanean.*
Equipo multidisciplinar trabajando en la concepción de una exposición.

Irisgarritasun-neurriei buruzko informazio-panela.
Cosmocaixa. Barcelona.
Panel informativo sobre medidas de accesibilidad.
(Iturria: egilea)
(Fuente propia) ●

Accessibilitat
Accesibilidad
Accessibility
Accessibilité

Més informació, al taulell d'atenció al visitant
Más información, en el mostrador de atención al visitante
Further information at the visitor service counter
 Pour en savoir davantage, adressez-vous au comptoir d'accueil du visiteur





NOLA HASI?

Abiapuntu gisa, epe luzerako ibilbide-orri bat sortzea gomendatzen da, honela zehaztuta: **Irisgarritasun Plana**. Irisgarritasun Plana, museoeko eraikinean, zerbitzuetan eta programetan dauden oztopo fisiko, sentsorial eta kognitiboak ezabatzen joateko.

1 LEHENBIZI: AHALIK ETA TESTUINGURU

ONENA PRESTATU

Museoaren pertsonalaren aldetik borondatea eta kontzientziazio partekatua + Museoeko arduradunaren konpromisoa (publikoa bada inplikatu Administrazio titularra) + Plaifikazioa + Museoan Irisgarritasun arduraduna izendatu + Planari baliabideak zuzendu + Museoaren pertsonalaren hasierako prestakuntza.

2 HASIERATIK: INFORMATU

Erabiltzaileei

informazioa ematea, hainbat kanalen bidez, museoaren irisgarritasun-egoerari buruz. Era berean, web-orria pertsona guztientzako erabilerraza izan behar da.

3 MUSEOAREN EGOERA EZAGUTU

Neurriak ezarri aurretik, museoak irisgarritasunaren arloan duen egoera ezagutzea da gomendagarriena. Izan daiteke denboran zehar neurri zehatz batzuk hartu izana, eta hutsetik ez hastea. Txosten hau irisgarritasunean adituak diren eragileei eskatzea gomendatzen da.

4 SEKTORE SOZIALAREKIN

ELKARLANEAN ARITU

Desgaitasuna duten pertsonen kolektiboekin epe luzerako lankidetzak sortzea gomendatzen da, elkarrekikotasunean oinarrituta. Museoak egiaztatu eta hobetu egiten du, programa berriak sortzen ditu, eta kolektibo sozialak etekina ateratzen die horiei guztiei, kultur eskaintzaz gozatzeko aukerak gehituz.

5 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN-

TZAKO ARRETARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Sektore sozialarekin elkarlanean aritzeari dagokionez, gomendagarria da irisgarritasunari buruzko prestakuntza-plan bat txertatzea museoako langileentzat; bereziki, desgaitasuna duten pertsonentzako arretari buruzkoa.

6 MUSEOKO DISKURTSOAK BERRIKUSI

Funtsezkoa da neurriak ezarri aurretik, museoak eskaintzen duen diskurtsoa bera berrikustea. Diskurtso honen mugari garrantzitsuak identifikatzea lagungarria izan daiteke balioesteko zer baliabide ezar daitezkeen, noiz eta nola.

7 IRISGARRITASUN PLANA SORTU

Irisgarritasun-diagnostikoaren arabera, antzemandako neurri irisgarrien plangintza jasoko duen Irisgarritasun Plan bat sortzea gomendatzen da. Garrantzitsua da museoeko langileen prestakuntzarekin jarraitzea, ahal bada desgaitasun motaka sailkatuta.

8 EZARRITAKO EKINTZAK EBALUATU

Ekintzak ezarri ahala, oso gomendagarria da erabiltzaileekin eurekin ebaluatzea. Erabiltzaileen feedbacka lagungarria izan daiteke testeatzeko eta zuzentzeko. Aurrera egin ahala irisgarritasunari buruzko informazioa eguneratu beharko litzateke informazio kanal ezberdinetan.

9 IRISGARRITASUN PLANAREN

JARRAIPENA ZIURTATU

Planak epe luzera betearazteko nahikoa baliabide eduki behar ditu, eta, ahal dela, partida ekonomikoa propioa izan behar du museoaren urteko aurrekontuaren barruan.

10 EZARRITAKO NEURRIEI EUTSI

Ezarritako ekintzek denboran iraungo dutela ziurtatzea eta berriz ezartzeko partida edukitzea. Era berean, museoaren irisgarritasunari buruzko gogobetetze-inkestak txertatzea gomendatzen da.

¿CÓMO EMPEZAR?

Como punto de partida se recomienda crear una hoja de ruta a largo plazo que se concrete en un: **Plan de Accesibilidad para eliminar las barreras físicas, sensoriales y cognitivas** en el edificio, servicios y programas del museo.

1 EN PRIMER LUGAR: **PREPARAR EL**

MEJOR CONTEXTO POSIBLE. Voluntad y concienciación compartida por el personal del museo + Compromiso del / la responsable del museo (si es público implicar a la Administración titular) + Planificación + Nombrar persona responsable de Accesibilidad en el museo + Destinar recursos al Plan + Formación inicial del personal del museo.

2 DESDE EL PRINCIPIO: **INFORMAR**

Informar a las personas usuarias a través de diferentes canales sobre el estado de accesibilidad del museo. A su vez, se debe garantizar que la página web sea accesible para todas las personas.

3 **CONOCER LA SITUACIÓN DEL MUSEO**

Antes de implantar medidas lo más recomendable es conocer la situación del museo en materia de accesibilidad. Puede ser que se hayan adoptado medidas a lo largo del tiempo, de forma puntual, y que no se parta de cero. Se recomienda encargar este diagnóstico a agentes expertos/a en accesibilidad.

4 **COLABORAR CON EL SECTOR SOCIAL**

Se recomienda llevar a cabo colaboraciones a largo plazo con colectivos de personas con discapacidad, que se basen en la reciprocidad. El museo contrasta y mejora, crea nuevos programas, y el colectivo social se beneficia de todas ellas, ampliando sus posibilidades de disfrutar de la oferta cultural.

5 **FORMARSE SOBRE ATENCIÓN A PERSONAS CON DISCAPACIDAD.**

En el marco de la colaboración con el sector social se recomienda incluir un plan de formación para las y los trabajadores del museo sobre accesibilidad, y especialmente sobre atención a personas con discapacidad.

6 **REVISAR LOS RELATOS DEL MUSEO.**

Es fundamental antes de implantar medidas, revisar el propio discurso que se está ofreciendo desde el museo. Identificar los hitos importantes de este relato puede ayudar a valorar qué recursos accesibles implantar, cuándo y cómo.

7 **CREAR UN PLAN DE ACCESIBILIDAD**

En función del diagnóstico de accesibilidad, se recomienda la creación de un Plan de Accesibilidad que comprenda la planificación de las medidas accesibles detectadas. Es importante seguir con la formación del personal del museo, a poder ser por tipo de discapacidad.

8 **EVALUAR LAS ACCIONES IMPLANTADAS.**

A medida que se implantan acciones es muy recomendable evaluarlas con las propias personas usuarias. Su feedback puede ayudar a testear y corregir. A medida que se avanza se debería actualizar la información sobre accesibilidad de los diferentes canales de información.

